



Euskal Herriko ikastolei beren proiektuak aurrera ateratzen laguntzeko **TANTA** egitasmoa aurkeztu zuen Ikastolen Elkarteak pasa den ikasturtean. Proiektua abenduan martxan jarri zen eta zozketa ekainaren 25ean izan behar zen, baina COVID-19 dela eta, ekimena gelditu zen eta zozketa egiteko data berria **urriak 21** izango da.

## Ikastolen aldeko TANTA ekimena

### Elkartasun tantak

Euskal Herriko berezko hezkuntza proiektuaren aldeko elkartasun adierazpena da **TANTA**, herritarrek Euskal Herriko ikastolen proiektuaren alde ekarpena eginez egikariturako dena. Halaxe azaldu dute Ikastolen Elkarteko eta ikastolen aldeko jaietako ordezkariak Donostian egin duten agerraldian. Ikastolen Elkarteko lehendakariak, eta lurralde bakoitzeko jaien ordezkari banak hartu dute parte prentsaurrekoan.

**TANTA** ekimenean txartel batzuk jarriko dira herritarren esku. Herritarrek bost euroko ekarpena egingo diote Euskal Herriko ikastolen proiektuari, **TANTA** txartel bakoitzeko. “Ekarpen horri esker, ikastolok gure proiektua aurrera ateratzeko bultzada ekonomikoa jasoko dugu”, azaldu dute.

“**TANTA** txartelaren bitartez, herritarrak partaide izango dira ikastoletako egungo ikasleen garapenean, etorkizunean izan daitezkeen euskaldun konprometituek, beren buruekiko konfiantzadunak, lankidetzan ikaskideak, erabaki hartzaile kritikoak,

euskaldun eleanitzak, ekintzaile gogoetatsuak, jokabide kritikodunak, ikusmira zientifikodunak, orekaren zaintzaileak eta sortzaileak”.

Ikastolek herritarren elkartasun adierazpen hau saritu egin nahi dutela ere esan dute. Horregatik, **TANTA** txartela erosten dutenek, trukean, **60.000 euroko zozketa** batean parte hartuko dute.

**TANTA** egitasmoa ikastolen jaien ekimenez sortu da. Azaldu dutenez, jaiok finantzatzeko, egunean bertan eta urtean zehar diru sarrerak lortzeko bideak irekitzen dira (arropa salmenta, txosnak, tonbola, sarrerako kutxak, kultur eta kirol ikuskizunak...). Baliabide horietako bat zozketa izan da. Jai bakoitzak bere zozketa antolatzen du; dirua, auto bat, bidaia bat... gauza desberdinak zotz egiten dituzte. Helburua bera izanik –jaien autofinantzaketa–, bost zozketa horiek egin beharrean, ikastolen jaiak elkartasun txartelak egitea erabaki dute, eta **TANTA** sortu dute.

**TANTA** ikastolen jaien ekimenez sortu bada ere, ikastola guztien egitasmoa da. Horregatik Ikastolen Elkartearen ardurapean gauzatu da ekimena. Urtero, urte horretako jaien ikastola antolatzaileek izango dute elkartasun txartel hauek banatzeko ardura nagusia, baina ikastola guztiek ere parte hartuko dute ekimenean. Guztiak arituko dira herritarren elkartasuna tantaz-tanta biltzen, auzolanean.

**TANTA** egitasmoarekin **IKASTOLA EREDUA** ere azaldu nahi dute; nondik datozen, non dauden eta nora joan nahi duten adierazi nahi dute. Modu labur eta didaktikoan, ikastolen Historiaren eta egitekoen berri eman nahi da, eta horretarako, ikastolen ibilbidean gako izan diren gertakari, une eta pertsonen berri emango da, bilduma bat osatuz.

## Iniciativa TANTA

### **Gotas de solidaridad**

La solidaridad se recibe gota a gota. Se compone con cada gota que aporta cada persona. Las ikastolas sabemos bien lo que es la solidaridad. La hemos recibido desde nuestra creación, y gracias a esa solidaridad hemos podido llevar adelante el proyecto de las ikastolas.

Las fiestas de las ikastolas son el claro ejemplo de esta solidaridad que recibimos. Cada año, cientos de miles de personas nos la ofrecen, gota a gota. Con esta expresión de solidaridad, las ikastolas conseguimos recursos para poder llevar adelante nuestro proyecto pedagógico.

Las fiestas de las ikastolas son unos escaparates idóneos para poder mostrar nuestro modelo. Pero al mismo tiempo llevamos a nuestras fiestas una muestra de la cultura vasca (música, danza, teatro, gastronomía, juegos ...) para que todos podamos disfrutar y vivir de estas fiestas desde el euskera y en euskera.

Las fiestas de las ikastolas requieren un **auzolan** enorme. El **auzolan** es una de las características propias del modo de hacer de las ikastolas, y a partir de él organizamos nuestras fiestas, siendo éstas el resultado del trabajo solidario realizado por miles de personas.

Al igual que el **auzolan**, la **autogestión** y la **autofinanciación** también son características de nuestras fiestas. Siendo uno de los objetivos lograr un impulso económico para que las ikastolas puedan llevar adelante sus proyectos pedagógicos, se realizan diferentes actividades con ese fin: venta de ropa, txoznas, tómbola, cajas de las entradas, espectáculos culturales y deportivos....

Entre todas estas actividades siempre ha estado presente una rifa de un viaje, coche... Hasta ahora, cada ikastola responsable de la fiesta en ese año ha organizado la suya propia. Pero a partir de ahora se ha decidido crear un bono de solidaridad, denominado **TANTA**, cuya traducción al castellano significa “gota”.

## ¿Qué es **TANTA**?

**TANTA** es una manifestación de solidaridad hacia el proyecto educativo de las ikastolas pertenecientes a la Federación de Ikastolas de Euskal Herria que se materializa mediante la aportación económica de cualquier persona a favor del proyecto de dichas Ikastolas. Es una aportación de cinco euros por cada tarjeta de **TANTA**

Al comprar las tarjetas **TANTA**, participamos en el desarrollo del alumnado de las ikastolas, para que en el futuro sean euskaldunes comprometidos, sanos, saludables, seguros de sí mismos, cooperativos, creadores, cultos, receptores críticos, plurilingües, emprendedores reflexivos, y para que tengan criterios críticos y visión científica.

Las ikastolas no queremos que sea una simple aportación económica, sino que parte de la misma vuelva a alguno de los participantes ya que se realizará un sorteo entre todos ellos cuyo número premiado recibirá 60.000 euros.

A través de **TANTA** también se quiere explicar el Modelo IKASTOLA y dar a conocer de dónde venimos, dónde estamos y a dónde queremos ir. De forma breve y didáctica, se pretende explicar la historia y la función de las ikastolas, y para ello, mediante la tarjeta se darán a conocer hechos, momentos y personas clave en la trayectoria de las ikastolas.